



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Larunbata
2008-03-08**

VIURTEA 1.381 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Amezketako balioaitzeko gelan biltzen dira ostegunero bertso eskolako 30 ikasleak, Gorostidirekin batera. N. URBIZU

Aizkardiren ibilaldian parte hartzeko izen-ematea zabalik

VILLABONA Hilaren 30ean egingo dute 40. aldiz eta ibilaldi motza edo luzea egiteko aukera dago 4

Euskal Herriko historia izango du hizpide Soraurenek

TOLOSA Kultur Etxean eskainiko du hitzaldia etzi, Lizardik antolaturiko hitzaldien baitan 2

Nazioarteko hainbat begiralek herria bisitatu dute

LIZARTZA EA Eren zerrendako kideekin elkartu ziren herenegun zazpi begirale 6

PERNANDO AMEZKETARRA ESKOLA, BERTSOLARIEN HARROBI

AMEZKETA 30 lagunek eman dute izena; irakaslea Bixente Gorostidi da; «beti izan da nire ametsa herrian bertso eskola sortzea», dio 3

Foto
Depilazioa

Azkenik bukatu egin da ilearen arazoa



Hanka osoak

250€

Martxoaren 1-etik 15-era

Shuyana Edergintza

Eskolepietako Lorategiak, nº 13, 1º A
20.400-Tolosa. Tel. 943 67 54 89



Euskal Herriaren historia mintzagai

Tolosa » Honen ikuspegi orokor bat eskainiko du Mikel Sorauarenek etzi iluntzean, Kultur Etxean eskainiko duen hitzaldian.

ERREDAKZIOA

Historia ikastaroen baitan, etzi *Euskal Herriaren historia* izeneko hitzaldia eskainiko du Mikel Sorauarenek. Saioa gazteleraz izango da, aurrekoetan bezala, 19:30ean, Kultur Etxean.

Berak, Euskal Herriaren historiaren laburpen bat egingo du, herrialde honen, esentzia politikoa-ren nondik norakoak agertuko ditu. Hizlariaren esanetan, «nahasmen handia dago jendearen artean, gure historia nolakoa den azaltzeko garaian, eta hauek argitu beharra dade».

Asteleheneko hitzaldiaz gain, beste bat ere eskainiko du Mikel Sorauaren irakasle ohiak, hau apirilaren 14an izango da, eta 1200eko konkista izango du aztergai orduan.

Z Zurea da hitza

Debekuen gaintetik kalera irteteko deia

TOLOSALDEKO BILGUNE FEMINISTA

Gaur kalera irten eta gure aldarrikapenak egiteko eskubidea urratu nahi digu Espainiako gobernuak Nafarroan, Iruñea eta Altsasun urtero bezala antolatatu diren mobilizazioak debekatu. 100 urtetan zehar ospatzen ari den eguna 2. mailan utzi du PSOEk, Espainiako hauteskunde orokorrak hurrengo egunean izendatuz. Ez dute kalera irteteko dugun eskubidea bermatu eta azken unean debekatu dituzte mobilizazioak. Emakumeok bizi dugun zapalkuntzan agerian geratu da PSOEren txanpon bakaurreko alde bikoitza. Batetik, berdintasunerako legea, bikote ho-

mosexualak ezkontzeko baimena, emakumeen indarkeriarekin amaitzeko promesak egin dituzte baina emakumeok protagonismoa hartzen duten egun bakarra isilarazi nahi dute. Debeku hauen aurrean, aurretik, inoiz baino arrazoi gehiago ditugu kalera irten eta gure eskubideak aldarrikatzeko. Bilgune Feministatik 13:00etan Trianguloan antolatatu dugun elkarretaratzean parte hartzeko dei egin nahi dizuegu. Halaber, gonbidatuta zaudete Adunako kultur aretoko kafe tertuliara (19:00) eta baita 21:00etan Tolosako Oargin izango den bertso afarira. Azken honetarako deitu 635 708 593ra.



«Euskal Herri askearen aldeko festa»

POLITIKA » Festa giroan ospatu zuten Amezketan Independentzia Eguna. 30 lagun inguru bildu ziren. Gero kotxe karabana egin zuten eta plazan bozkari su eman zioten. Tolosan berri, atzarako deituta zegoen festa, baina Arrasateko atentatua zela eta, «ardura politikoz jokatu» eta egitaraua ekitaldi politiko batera murriztea erabaki zuten. Hala ere, apirilean Independentzia Eguna egingo dutela eman zuten jakitera, eta aurretik ere horren berri emango dute. HITZA

S Soka motzean

«Baserritarrak, antzerkiaz gain gauza asko egiteko gai gara»

BEGOÑA ARISTI » Baserritarra

ESTIEZEIZA

Begoña Aristi (Tolosa, 1978) baserrian bizi da, eta beste baserritar batzuekin batera *Baserritik baserrira* antzerkian egin du. **Baserritarrak antzerkiaz izateko gai ere ba al dira?** Baserritarrak antzerkia ez ezik, gauza asko egiteko gai gara. **Antzerkiaz lanak edo baserrikoak nahiago?** Baserrikoak, dudarik gabe. **Nola azaldu kaletar bati zer den lera?** Garai batean baserrietan erabiltzen zen tresna eta egun ia galtzar dagoena, baserritarrak bezala. **Nola ikusten du kaletarrak baserria?** Urruti. Kalearen eta baserriaren arteko zubi falta bat dago, eta ezjakintasun handia ere bai. **Zer du baserriak kaleak ez duena?** Niretzat dena, kaleak eskaintzen ez didan bizitzeko eta lan egiteko modua ematen dit. **Kaletarra baserrira joatean?** Ezjakintasunaren islada. Uste ez dutenarekin topatzen dira.



MARTA SAN SEBASTIAN

H Hilberriak eta urteurrenak

ANA ISABEL ARRUTI

Azken dantza hau
Maitia zurekin
Nahi zinduzket
Eraman nerekin



Harribil Dantza Taldea

ORIO
2008ko
martxoaren 8a

ANA ISABEL ARRUTI

Zutaz oroituko garen
Galdetzen dizut begirada batez
Beti itxarongo zaitugu
Azken geltokiko argitasunean
AMETS ezkutuen isiltasunean



Txurrunuski

ORIO
2008ko
martxoaren 8a

JOSE LUIS ORBISO LARREA

Urak dakarrena
urak daroa
zuk emandakoa
gurekin gelditzen da



Artzanegiren eta Mederiren koadrilak

LEZO
2008ko
martxoaren 8a

JOSE LUIS ORBISO LARREA

Beti izango zaitugu
inoiz baino bertago
gure bihotz xokoa
gure lagun,
gure babesle



Murixka Dantza Taldea

LEZO
2008ko
martxoaren 8a

MIKEL OSA

Udal Korporazioa
eta langileak



LEZO
2008ko
martxoaren 8a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan **DOAN** agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Pernando Amezketarra bertso eskola berria sortu dute Amezketan: ilusioak, gogoak eta modu batean, beharrak ere bultzatu dute eskola hau. Oinarrizko gauzak lantzen hasi dira bertsozaleak.

Bertso berriei punttue jarritz

NEREA URBIZU

Lasarte, Basarri eta Uztapide lantzea egokitu zitzairen joan den astean Amezketa-ko Pernando Amezketarra bertso eskola berriko ikasleei. Doinu berriak ikasten hasi, eta potu egin gabe, bertsoaritzaren oinarriak ikasten hasi dira.

30 lagunek eman dute izena bertso eskola berri honetan, guztiak adin ezberdinekoak: Abaltzisketa-tik ere jendea jaisten da klaseak hartzera. 14-15 urte ingurukoak gazteenak eta helduenak 50 bat ingurukoak dira. Bixente Gorostidik prestatzen ditu klaseak, ostegunero biltzen direnentzat.

Maila ezberdineko jendea dago, baina lehen pausoa denei emateko zerekin diren oinarriak ematea da Bixente Gorostidirentzat. Honela, 30 ikasleak talde desberdinetan banatuko ditu Gorostidik. 12 urte inguruko esperientzia dauka klasetan amezketarrak, beraz, zerbait badakiela esan daiteke.

Klase hauetarako denetik erabiltzen du: «Baina onena denetik erabiltzea da, liburuetatik ateratako, historia kopapen gisa bertso-lari bakoitzeko, bertso sorta batzuk, hutsuneak bete... Azken hauek askotan neronek prestatzen ditut, gertuko gaiak lantzeko gehienbat, eta errazago da». TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK klase erdi bat ikusteko aukera izan zuen, eta egunkariari berari bertso pare bat eskaini zizkien.

Bertsoaren alde lanean

Bi bertso eskola mota daude: hezkuntza arautuko proiektua (Gorostidi bertan izaten da ikastetxeetan: Tolosa, Ordizia, Beasain, Lazkao, Zaldibia), eta bestetik bertso eskolak daude. Hauetan ere ibiltzen da bertsoak irakasten, egurditan: Berastegin, Alegian, Tolo-


san eta Amezketan. 8 bertso-lari-inguru ibiltzen dira hezkuntza arautuan: Gorostidi, Mendiluze, Unai Muñoa, Iñaki Gurrutxaga, Jokin Uranga, Nerea Urra, Nagore Sorroa... Baina eskualdean, Mendiluze eta Gorostidi aritzen dira.

Herriaren erroa, bertsoa

Gorostidik azken lau urteetan hezkuntza arautuan batez ere izan du esperientzia, eta herri handitan: Beasainen, Ordizian...

Oraindik ekonomikoki nola funtzionatuko duen ez dakite, baina bertso-lariak argi esan bezala, «bilera egin genuen, jendearen helburuak zein ziren jakin, taldea osatzearan aukerak ikusi... Antolatzailerak Udalarekin daude harremanetan eta diru laguntzak izan daitezke, baina inolaz ere, diruak arazoa ez du sortuko hemen bertso eskola egoteko. Nire aldetik ez dago inongo arazorik: ez bada ordaintzen ere, guk jarraituko dugun».

Amezketak, beraz, badu bertso eskola eta esku honetan gainera. Ordu bat nahikoa izan zen herriaren erroa zaintzeko prest zeudela ikasleak, eta hauekin gozatu eta jolasten dutela. Beraz, *bertsoa!*



Amezketako ikasleek klasean egindako bertso bat. N. URBIZU

«Beti izan da nire ametsa herrian bertso eskola bat sortzea»

BIXENTE GOROSTIDI | Bertso-laria eta bertso irakaslea

Amezketak » Balioanitzeko gelan elkartzen dira, eta irakaslea bertsoa izanik, gusturago dirudi hartzen direla klaseak.



N. U.

Pernando Amezketarra bertso eskola berrian 30 lagunek hartzen dute parte, eta eskolak Bixente Gorostidi bertso-lariak ematen ditu (Amezketak, 1973). Gogotsu eta ilusioz ekin dio bere herrian bertsoak irakasteari.

30 lagun batera. Maila desberdinetan izango dira, ez?

Bai, guztiz diferentek. Gazte batzuk Alegian bertso eskolan arituak ziren eta oinarri batzuk daukate. Beste batzuk, hutsetik hasi dira. Heldu batzuk oso bertsozaleak izandakoak dira eta bertsoetan moldatzen dira baina ez dira inoiz klasetara joan. Hautzako berriak dira. Azkenik, helduen artean ere, bertsoekiko ikusmin bereziak ez duen jendea dago eta orain animatu egin direnak. Oso maila desberdineko jendea eta alde horretatik ez nekien nola egin. Hasiarako klaseetan oinarrikoenak azalduko ditut, eta baita bertsoaritzaren historia ere. Hori bukatuta, saikatu egingo dut. Haien artean ez da eroso hainbeste jende izatearekin. Bertsoetan ikasteko abestu egin behar da eta lotsaren faktorea ere hor dago.

Amezketak orain arte bertso eskolarik ez izatea arraroa da...

Beti eduki dut gogoan bertso eskola bat herrian sortzeko, eta ateratzen diren taldeen kopurua ez zait inporta. Beste herri askotan ere ez dago ez delako planteatu, eta beharrik ez delako ikusi. Orain, herri handietan bertsoaritzak irakasten dut, duela 4-5 urte eta horiekiko errespetua beti gordeta, esan beharra dut, hango ikasleek euskara maila eta herriekin konparatuta oso diferentia da. Ikusten nuen ari ginela galtzen izugarriko altxorra. Azken urte honetan, egoskortze egin nintzen eta eskola hauek herri txikietan sortzen hasi behar ginela pentsatu nuen.

Zein izan da orain arte arazoa?

Ekonomikoa. Herri handi baten aurrekontuan agian ez da horrenbeste gastua bertso eskola ordaintzea, baina herri txikitan, le-

hendik ere gastuz gainezka daude. Probatzen hasi ginen eta hau sortu da. Deialdia hemen egin genuen sorpresa izan zen, ez nuen erantzun handi hau espero.

Nolatan sortu da orain bertso eskola Amezketan?

Bertso eskola osatzeko asmoa beti izan dut, baina orain arte ez zait egokitu halako aukerarik. Ikusten nuen ere, jendea gogoarekin zebilela, parrandetan bertsoak botatzen dituztenak ere bai, lehen Alegian ibili zirenak (DBH ondoren jarraitzeko aukerarik ez dute herrian) eta horiek ere ari zitzaizkigun esaten eta hala hasi zen. Herri-tarren babes eta gogoan izan dira. Beti izan da nire ametsa herrian bertso eskola sortzea.

Zein da zure helburua?

Bertsoa ezagutzeko, eta bertsoa eta bertso inguruak ezagutzeko ematea, behintzat. Bertsoaritzak hitzekin jolastea da. Herri handietan gehienbat, komunikatzeko tresna da hizkuntza, baina herri txikietan badu funtzio ludiko bat, eta bertsoa horrekin lotuta dago.

Nola ikusten duzu bertsoaritzaren egoera Tolosaldean?

Ondo, baina faltan botatzen dit Tolosan bertsoaritzak egonkortzea. Ahalegin hori egin behar dugu, ez da egonkorra, eta iraupe-na izatea nahi nuke. Ametsa, berriaz, Tolosaldeko herri guztietan bertso eskola bat sortzea izango litzateke. Hauetan baliabide falta dago, baina laguntzekin iritsiko gara.



Amezketako balioanitzeko gelan biltzen dira ostegunero, ordu bat inguru. N. URBIZU

Iragarki laburrak

LANA

■ **Etzeko lanak.** Emakume euskaldun bat behar dugu etzeko lanak egiteko eta adineko emakume bat zaintzeko. 651 70 42 19.

SALGAI


■ **Hondarra.** Itsasoko hondarra salgai, baratzeako lurriari nahasteko edo lorategietarako. Beharrezkoa kamioiarentzako sarrera ona edukitzea. 16 m3 250 euro. 617 38 19 39.

■ **Etxebizitza.** Tolosa erdian bi lorge-lako etxea salgai, egoera onean, oso merkea. 665 70 86 35.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Eszerrean, mapa baten gainean bi ibilaldien ibilbidea. Eskubiko grafikoan, bi ibilaldien malda. HITZA

Aizkardiren 40. Ibilaldirako izena emateko epea zabalik

Villabona » Martxoaren 30ean egingo dute eta azken urteetan bezala, ibilbide luzea eta motza egiteko aukera izango da.

IMANOL GARCIA

Hilaren 30ean izango da aurtengo Aizkardiren Ibilaldia. Bere 40. aldian izango da eta Euskal Herriko iraupen luzeak zirkuiturako baliagarria izango da. Guztira 43 kilometro izango ditu ibilaldi luzeak. Azken urteotan bezala, ibilaldi motza ere izango da, hau 23,5 kilometrotakoa. Biak Villabonan hasi eta bukatuko dira.

Ibilaldi luzeak 2.500 metroko malda izango du orotara eta iraupena 10 ordukoa izango da gutxi-gora behera. Irteera ordua 07:00etan izango da, eta ohikoa denez, antolatzaileek gogorarazten dute gau horretan ordu aldaketa izango dela. Ibilbidea ondorengo izango da: Villabona (61 m), Otsabi (110 m), Komizar (200 m), Meaka (530 m), Belabieta (675 m), Belabietaxiki (744 m), Urdelar (857 m), Mugaga (685 m), San Lorentzo (803 m), Gorosmendi (675 m), Ipuliño (929 m), San An-



Eszerreko mendikatean, San Lorentzo eta Ipuliño, eta eskubian, Erroizpe. HITZA

ton (553 m), Uli (850 m), Arburu (780 m), Erroizpe (802 m), Berrobi (152 m), Uzturre (726 m), Loatzo (635 m) eta Villabona (61 m).

Ibilaldi motzaren malda 1.050 metrokoa da orotara eta iraupena 5 ordu eta erdikoa da gutxi-gora behera. Irteera ordua 08:00etan da eta ondorengo da ibilbidea: Villabona (61 m), Otsabi (110 m), Komizar (200 m), Meaka (530 m), Belabieta (675 m), Belabietaxiki (744 m), Urdelar (857 m), Mugaga (685 m), Kanal Handia (300 m) eta Villabona (61 m).

Aizkardiren web orrian (www.aizkardi.com) eman daiteke

izena eta antolatzaileek bide horixe proposatzen dute. Doan da eta hilaren 28ra arte dago aukera horretarako. Informazioa jasotzeko 649 71 71 82 zenbakira deitu daiteke astelehenean ostiralera, 20:00etatik 22:00etara, edo ibilaldia@aizkardi.com helbidera idatziz.

Zozketa «arrakastatsua»

Ohi bezala, irteera lekua Aizkardi Mendizale Elkartearen egoitza ondok izango da, hau da, herriko elizaren ondoan. Jan-edanek norberaren kontu izango dira. Bukarera, dutxa zerbitzua egongo da

nahi duenarentzat. Antolakuntzak gela bat prestatuko du koltxonetekin bezperan bertan lo egin nahi dutenentzat. Zerbitzu hori erabili nahi dutenek, antolakuntzari jakinarazi behar diote telefonoz edo posta elektronikoz.

Urteroko ohiturari jarraituz, ibilaldi bukatzen duten eta bertan aurkitzen diren partaideen artean, hainbat opari zozketatuko dira. 17:30ak aldera izaten da, Aizkardiren egoitzaren ondoan, eta antolatzaileek azaltzen dutenez, «arrakastatsua» izaten da. «Saltsa polita izaten da. Beste martxa batzuetan iristen zarenerako badakizu zerbait tokatu zaizun. Hemengoan momentuan egiten da»

Aurten XIV Orduak egingo dira eta horrek ziurrenik partaidetza handituko du. Aizkardikoa prestatuta bezala erabiliko dutelako. «Normalean izaten du eragina eta beste urteetan horrela gertatu da», azaltzen dute Aizkarditik. Horrela, azken urteotan ibilaldi luzea egiteko biltzen diren 400 lagunetik gorako kopurua izango dela aurreikusten dute, agian 600 ingururaino iritsiz. Ibilaldi luzeetan urteko lehenengo denez, urtero parte-hartzaile kopuru batek errepikatu egiten du. Hainbat lekuetatik etortzen dira, tartean Kantabriatik ere. Antolaketan zortzi bat lagun aritzen dira eta egunean bertan 40 lagun inguru aritzen antolatzaile lanetan: txartelak ematen, ibilbidea markatzen, markak kentzen, kontrolak egiten...

Laburrak

Carrascoren hilketa salatze elkarretaratzek

POLITIKA » Arrasaten, atzo, Isaias Carrasco PSE-Eren zinegotzi ohiaren hilketa salatze elkarretaratzek deitu dituzte gaurko, 12:00etan, erakunde publikoen aurrean.

Sagardotegira joateko izen-ematea zabalik

BALIARRAIN » Astigarragako sagardotegi batera joateko izen-ematea epea zabalik dago herritarrentzat. Etzi arte dago horretarako aukera. Ondorego zenbakietara deitu behar da: 943 88 90 03, 943 88 74 79 eta 943 58 20 17. Afaria hilaren 29an izango da eta 19:30ean abiatuko dira plazatik Jai Batzordeak antolatutako autobusean.

Barreterapia, afaria eta Joneren emanaldia, gaur

ANOETA » Gaurkoan Kultur Asteak bat egingo du Emakumearen Nazioarteko Egunarekin. Horrela, 10:00etatik 12:00etara barreterapia saioa antolatu dute kiroldegian. 20:30ean afaria izango da Buztina jatetxe batean. 22:30ean Jone bakarariaren kontzertua Gaztetxean. Bihar amaituko da Kultur Astea, kiroldegian egingo den Xake Txapelketarekin. 10:30etik 12:30era eta 15:30etik 17:30era izango da hori.

Herriko festak prestatzeko bilera egingo dute etzi

ANOETA » Herriko festak prestatzeko hurrengo bilera etzi izango da, hilak 10. 19:00etan elkartuko dira udaletxean. Udal Kultura Batzordeak dei egiten die herriko talde guztiei eta herritar orori bertan parte hartzera.

Gurea aretoko zinema eskaintza astebururako

VILLABONA » Asteburuan Gurea aretoa bai haurrentzako bai helduentzako zinema egitaraua izango da. Helduentzako *Juniper* filma ikusi ahal da, gaur 22:30ean, bihar 19:30ean eta etzi 21:30ean. Haurrentzako *Mizmy, mas alla de la imaginacion* filma ikusgai gaur 18:00etan eta bihar 17:00etan.

Irurako Udala

Emakumeen eskubideen defentsan!

Tel.: 943 69 13 33
Faxa: 943 69 16 89
Mikel Goi Aingeru, 1 • IRURA

www.irura.net
irura@udal.gipuzkoa.net

BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

...ETA ORAIN
PROBIGURRAK

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

Salgai (Tolosa). Etxebizitza, Bidebieta auzoan, gutiz eraberritua.

Salgai (Aizkiza). Etxe handia Iursallarekin, 400m², gutiz eraberritua.

Salgai (Tolosa). Etxebizitza garaiearekin, Trinkele auzoan.

Salgai (Tolosa). Etxebizitza, Kale Nagusian, igogailuarekin, sartzeko moduan eta bestea eraberrituko igogailurik gabe.

Salgai (Tolosa). Garaieak, San Frantzisko eta Leidor azpian.

Salgai edo Alokatzeko (Lasarte). Lokala, tximiniarekin, erdiguinean.

Alokatzeko (Amezketeta). Etxebizitza.

Alokatzeko (Tolosa). San Frantzisko eta Araba etorbidean.

Alokatzeko (Ibarra). Etxebizitza.

San Frantzisko eta Araba etorbidean. Pabillio industrialia, Leaburuko bidean.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

100. urteurrenean, elurra eta eskia mintzagai

Tolosa » Eskiaren sorrera aztertu zuen Francisco Tudurik eta gaur egungo eskiari buruz jardun zuten herenegungo saioan.



Ezker-eskuin: Aitor Elduaian aurkezlea, Mikel Troitiño, Joseba Ormazabal, Isabel Dumall eta Josu Iztueta. JOXEMI SAIZAR

ERREDAKZIOA

Elurra eta eskia mintzagai izan dira herenegun eta asteazkenean udaletxeko areto nagusian, tolosar batzuk duela 100 urte lehendabiziko aldiz eskiak jantzi eta elurretan ibili zirela oroitzeko. Asteazkenean Francisco Tudurik XIX. mende hasierako Tolosako giroa eta bizi-modua ekarri zuen gogora: norvegiarren etorrera Mustad enpresa

irekitzeko, lehen eski irteerak, Ski Club Tolosanoren sorrera, Eaux-Bonneseko jauzi konpetizioak, Elkartea Pirineisten Kongresoa Tolosan 1911n... Abokatu tolosarrak, bere *Cuando el esquí comienza* liburuko datu eta ondoren jasotako beste xehetasun berri asko aipatu zituen bere hitzaldi interesgarrian.

Herenegun berriz, gaur egungo eski modalitate desberdinak aztertu zituzten Mikel Troitiño snowboard praktikatzaile eta monitorea, Joseba Ormazabal mendi eski txapelidunak, Isabel Dumall iraupen eskiko eta triatloi zuriko txapelidunak eta Josu Iztueta eski espediziozaleak. Aurkezpen bideoaren ondoren, parte-hartzaile

bakoitzaren hasierak eta ibilbideak azaldu eta hainbat gai jorratu zituzten mahai-inguruan: konpetizioaren garrantzia zabalpenerako, materialaren bilakaera, praktika bakoitzaren prezioa eta adina, eski estazioak, eragina ingurumenen, etorkizuna... Aurreko egunean bezala, aretoa betetzen zuten entzulegoak adi-adi eta gustura jarraitu zuten eztabaida.

Eta eskizale batzuk antolatutuzten ekitaldi hauekin bukatzeko, garai bateko eta egungo eskizaleak bilduko dira gaur 20:30ean Aralar Kirolak-en, ondoren Tolosako Zentro Sozio-kulturean (jubilatuen egoitza, Emeterio Arrese plaza) afaltzeko.

Final-laurdenetan ariko da Zazpi-Itturri

ERREDAKZIOA

Zazpi-Itturri pilota eskolako jokalariek final-laurdenetako partidak jokatu dituzte Berria Txapelketan, hilaren 16an. Izan ere, final-zortzirenetako azken jardunaldian Ametzetakoek eta Zugarralde zerrendaburuek ez zuten kale egin. Gipuzkoarrek Igorre kanporatu zuten haien frontoian (39 puntu), eta nafarrek Ezkarai Her-

nanin. Hauek izan ziren, hain zuzen, Kadeteak: Gallurralde-Arratibel 22 Gomez-Izurietan 11; gazteak: Sukia-Arzelus 22 Arrese-Martin 12; nagusiak Elurbe-Legarreta 22 Atutxa-Lekue 16.

«Kadete indartsuak dauzka» Zazpi Itturrik. Haiek ziren lehen partida irabazteko faboritoak, eta ez zuten hutsik egin.

Ongi aritu ziren bi atzelariak,

baina Arratibel Izurietan baino indartsuago. Aurreko koadroetan egon zen alde handiagoa. Asko arriskatu zuen Gomezek, baina ez zuen asmatu. Gallurralde ederki baliatu zuen bere atzelariaren lana, eta 12 tanto egitea lortu zuen.

Gazteen partidak oreka gehiago izatea espero zen, baina hasieratik ikusi zen oreka gutxi izango zela

han. Zazpi Itturrikoak «partidan oso sartuta irten ziren eta azkar hartu zuten aurrea».

Hasi eta bukatu berdin aritu ziren irabazleak. Sukia eta Arrese aurrelariak lehia polita izan zuten neurketan zehar, baina Sukiak etenkin gehiago atera zion sakeari. «Onena», dena dela, «Arzelus izan zen».

Nagusien partida hasterako, gi-

puzkoarrek bazekiten tanto bakarra egitea nahikoa zutela kanporaketa gainditzeko. Bizati nabarmen ezberdinak izan zituen lehiak: Igorrekoentzat izan zen lehenengoan -Lekueren jokoari esker 4-11 hasi ziren aurretik- eta Ametzetakoentzat bigarrena Legarreta pilota baztertzen hasi zen, eta Elurberri erasora jokatzeko aukera eman zion.

8
martxoak marzo 2008

Emakumearen Eguna

T o l o s a

TOLOSAKO UDALA
BERDINTASUNAREN SAILA

anakume Pilotari
LEIDOR
EBEL

TOLOSAN
Tolosako Herriko Hilerria (E.P.A.)



Nazioarteko begirale taldeko zazpi kide herenegun Lizartzan, EAE-ANVren zerrendakideekin batera. A. IMAZ

Nazioarteko begiraleak Lizartzan egon dira

Politika » Lizartzan EAE-ANVren bi zerrendakideekin elkartu ziren zazpi begiraleak herenegun.

ASIER IMAZ

Nazioarteko begiraleak Lizartzan egon ziren herenegun eta EAEn zerrendakideekin elkartu ziren. Bestalde, 81 herritarrek elkarretaraztea egin zuten eta hauen esanetan, «begiraleak harriturik gelditu ziren herri txiki batean horrebeste jende bilduta ikustean, ikurrinekin eta abar».

Bozak jarraitzeko asmoz

«Europar beste inon gertatzen ez diren gauzak hemen gertatzen direlako» etorri da *freelance* edo independente bezala kazetaritzan aritzen den Ingo Niebel alemaniarra. Nazioarteko kideak bihar egingo diren Espainiako Gortetarako Hauteskundeetako begirale gisa etorri dira, hautetsi independentistek gonbidatuta. Euskal Herriaratzotz iritsi ziren begirale taldea osatuko duten 17 lagunetatik aurrenekoak Europara iristen den informazioa gutxi eta filtratua izaten dela nabarmendu zuten Niebelek, eta gonbita jaso zuenean, turismo kanpaina batean erabilitako *Etorri*

eta *kontatu ezazu* leloarekin oroitutako hori egingo zuela aipatu zuen Euskal Herrira ailegatzean.

Goizean Hernanin (Gipuzkoa) egon ziren «hemengo egoera ikusi eta gertutik ezagutzeko», bertan alkatearekin bildu ziren. Ondoren *Gara* eta *Berria* egunkariak bisitatu zituzten eta arratsaldean Lizartzara etorri ziren. Egun hauetan eta leku ezberdinetan ikusitakoarekin informe bat egin dute nazioarteko begiraleak, informea gaur aurkeztuko dute Iruñean (Nafarroa) prentsaren aurrean.

Lizartzan zazpi begirale

Lizartzara herenegun heldu ziren 20:00ak inguruan. Begirale taldeko zazpi kide etorri ziren eta EAE-ANVren zerrendako kideekin elkartu ziren. Herritarrek elkarretaraztea egin zuten bien bitartean, 81 lagun bildu zirelarik.

Lizartzara heldu zen begirale taldea hauek osatu zuten: Danimarkako Erik Pebersen kazetariak; Alemaniako Ingo Niebel kazetariak; Norbegiako Ingrid Baltzersen Osloko parlamentuko hautetsiak; Italiako Angelo Miotto osatuko duten 17 lagunetatik aurrenekoak; Herrialde Katalanetako Ana Maria Gabrielelek, Candidatures d'Unitat Popular alderdiaren alde-

tik Sallente-ko zinegotziak eta Herrialde Katalanetako CUPren Vilanova i la Geltruko zinegotziak, Quim Garrufat-ek hain zuzen ere.

«Oso beldurturik»

Lizartzako egoera ikusi ostean, Osloko parlamentuko zinegotziak, Ingrid Baltzersen-ek, «oso beldurturik» zegoela azaldu zuen, «zuzenbide estatuari jaramonik ez zaiola egiten ikusi dut, alderdi bozkatuena gobernuan ez dagoela ikusi dut eta oso beldurturik aurtuzten naiz, gure herrian horrelako gauzak gerta baitaitezke».

Sud Tirol-eko Christoch Von Ach-ek bere aldetik, komunitate internazionalak premiazko neurriak hartu beharko lituzkeela aipatu zuen: «Zerbait egin beharko luke premiaz. Ez dago posible, demokrazia mundu guztian zabaldu nahian ibiltzea eta etxean horrelako gauzak gertatzea».

Otaolaren mitina atzo

Herritarrek jakinarazi zutenenez, Regina Otaolak mitina eskaini zuen atzo Lizartzan 11:00etan. «Herria, ertzainez, bizkarzainez eta kazetariz bete da. Rajoy espero genuen baina ez dut uste agertu denik. Herritarrik ere ez zegoen kalean. Protesta moduan herritarrok pertsianak beharaino jeitsi ditugu».

Laburrak

Aiton-amonen eskolak abian daude jadanik

IBARRA » Uzturpe ikastolak azaldu duenez, Ibarra aiton-amonen eskolak abian daude. Ekimen hau 2005-06ko ikasturtean sortu zen, Haur Eskolako haurren bila hurbiltzen ziren aiton-amon kopurua handia zela ikusirik. Ikasturte honetatik aurrera udalaren Gizarte Zerbitzuen, Bizi-nahi Elkartearen eta ikastolaren artean kudeatua izango dela adierazi dute.

Gomazko Paletako finala bihar Beotibarren

TOLOSA » Emakumezkoen Gomazko Paletako 1.eko El Diario Vasco saria, hau da, finala bihar jokatu da 11:30ean Tolosako Beotibar pilotalekuan. Elguezabal-Mendizabal bikoteak Urkizu-Serre izango dituzte arerio frontoi motzean. Azken partida handiarekin batera, 3. eta 4. postuak erabakitzeko norgehiagoketak ere jokatu da, Fernandez-Larrion eta Agirre-Ruiz de Larrinagaren aurka. Goi mailako pilotariak ikusteko aukera egongo da bihar 11:30ean Beotibarren.

Nafar Jokoetako final aurrekoak Amazabalen

LEITZA » Amazabal pilotalekuan Nafar Jokoetako final aurrekoak jokatu dira bihar 11:30etatik aurrera. Alebinen eta infantilen arteko pilota partidua ikusteko aukera egongo da eta Aurrerako pilotarien arteko lehiak izango dira. Alebinetan, Mikel Sagastibeltza Lasarte-Ander Gartziarena bikoteak Mikel Sagastibeltza Egues-Oier Igartuaren aurka jokatu dute. Infantiletan, Xabier Jaunarena-Mikel Hernandorena bikoteak, Joxerra Aldaregia-Anartz Olano izango dituzte aurrean.

Erakusketa Triangulotik Leidorrean eraman dute

TOLOSA » Emakumearen Eguna dela-eta Udalak gaurko antolatutako erakusketa Trianguloan egingo beharrean Leidor Aretoa izango da, euri arriskuaren ondorioz, 12:00etatik aurrera. Bertan, emakume nekazarien inguruko argazki, tresna eta gailuak egongo dira ikusgai.

Negua iritsi al da?



» Zilarrezko Jaurtiketa

Jon Altuna

Berandu baina negua iritsi dela dirudi. Azken bi egunetan negu osoan adina euri egun du eta nahiz eta eguraldi ona eskertzen den, garaiari garaikoak hobe etortzen dira.

Orain dela hiru egun Sevillan ia 30 gradutara geunden eta orain berriro 10 gradutik behera ditugu. Al-daketa nabaria da paisaian, mendietara begiratu eta hodei beltzen artean mendi elurtuak ikus ditzakegu. Egutegiari begiratu ia amaitzean dago, baina berandu bada ere urtero bezala iritsi dira hotz, euri eta elurrak.

Negu beltza da guk etxetik kanpora aurtin darabaguna. Negar egitea txarra omen da, baina egia esan beti badugu zerbait hain zail eta garestiak zaizkigun garaipenak gehiago zailtzen dizkiguna. Aste honetan, jokatuak azken partidatzen, 30. minuturako jokalaritza gutxiago genuen. Gu baino hobea den talde bati halako abantaila emanik, ondorioa zein izango den jakitea erraza da: porrota.

Hala ere, gauza txar guztietatik ondorio onak ateratzen saiatu behar omen da eta honako honetan atera dezakegun ondorio onena, ihardunaldi bat gutxiago falta dela denboraldia amaitzeko eta jeitsiera postuak 5 puntura ditugula. Gainera, sailkapeneko lehen postuetan aurkitzen diren talde guztiak pasa ditugu eta gure antzera dabilten taldeen aurka jokatzeko falta zaie. Ea egoera hori aprobetxatzeko gai garen, hala ere, horretarako garrantzitsuenak gure irabaztea da eta lehen aurkari bezala Cadiz izango dugu. Aurkari zaila talde andaluziarra, baina etxean, Ipuruan, erakutsi dugu edozeini irabazteko gai garela eta ea hiru puntuak etxean geratzea lortzen dugun.

Ibarra Udala



Etxeko lanen erantzukidetasunaren alde

San Bartolome, 2 • Tel.: 943 67 11 38 • Faxa: 943 68 38 52
ibarra@udal.gipuzkoa.net • www.ibarrakoudala.net

Donostian dagoen enpresa batek KOMERTZIALA BEHAR DU Donostia aldean aritzeko

Erreferentzia: 08-IHK

Eskaintzen da:

- Egun erdiko kontratua.
- Soldata interesgarria, finkoak eta komisioek osatuta.
- Beste lan komertzialekin bateragarria.

Eskatzen da:

- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Komertzial lanetan eskarmentua izatea.
- Gida baimena eta autoa izatea.

Curriculum Vitae zehatza bidali, martxoaren 18 baino lehen, gizabaliabideak@jarduna.net POSTA ELEKTRONIKORA. Ez ahaztu erreferentzia zehatzea.



Leitzeko Inauterizale Taldeak eta Kultur Taldeak argazki bat oparitu zioten Agustin Aranbururi, oroigarri gisa. N. GARZIA

Atsaureen kalejiraren antolatzaileak, «oso pozik»

Ihoteak » Atsaureen kalejiraren inguruko balorazioa egin zuten eta aurrera begira dituzten asmoak zehaztu zituzten.

NAIARA GARZIA

Ostegunean Aurreran Inauterietan egindako atsaureen kalejira-balorazioa egin zuten Leitzako Inauterizale Taldeak eta Kultur Taldeak, eta «oso ongi» atera zela azaldu zuten. Aurtengoan orotara 35-40 lagun inguru atsauretu ziren. Bakoitza bere identitateamantentzen saiatu zen, hori baita mozorroaren zati bat da, garai batean horrela egiten zen eta aurtan ere horrela egin nahi izan dute.

Bileran, gainera, oroigarri bat eman zioten Agustin Aranbururi egin duen lana eskertzeko. «Gauza da Kultur Astearen hiltzaldi bat antolatu zela Inauteriak nola izaten ziren azaltzeko. Agustinek txapela baten armazioa ere ekarri zuen, eta hor sortu zen Inauterietan atsauretzeko erronka. Agustinek txapel batzuk egin zituen beretzako eta beste batzuentzako, eta gero irratiz, berak emandako bi traje osorik zozketatu zituzten. Eta horri esker indar handia hartu zuen. Adineko jendeari ilusioa egin ziola uste dugu».

Txapelaz gain, mozorroaren beste elementu nagusienetako maskuria izan ohi zen, baina aurtan honen ordez gehienek koloretazko poltsak hartu zituzten. «Maskuri gutxi daude orain. Lehenago txerriak hiltzean jasotzen ziren maskuriak eta orain txerria gero eta gutxiago hiltzen da eta gainera jendeak ez zituen gorde izan. Beharbada hurrengo urtean gehiago izanen dira». Gainera, da-



Zenbait herritar atsauretua. A. ARANBURU

torren urteari eta Kultur Astearen erakusketa eginen dute. «Eginak daude eta honela jendeak ikusi ahal izanen ditu».

Egitasmo berriak

«Gure asmoa da hurrengo urtean txapela handi horietaz gain, beste mozorro klase batzuk egitea, garai batean ere egiten zirenak. Atsaure tipu hau galdu zen bezala, beste batzuk ere galdu ziren. Batzuk behin zankoeekin atera ziren, beste batzuk ardi larruarekin eta sarde batekin...».

Gainera, Kultur Astearen txapelen erakusketa eginen dute. «Eginak daude eta honela jendeak ikusi ahal izanen ditu».

Haien helburua ez dela «ahalik eta jende gehien» elkartzea diote. «Koadrila eder bat elkartzen bagara, buelta bat ematen eta ongi pasatzen badugu, horrekin nahikoa da. Hori Ingurutzak bezala da, urtero dantzatu behar da, urte batean bikote gehiago ateratzen badira hobe, baina horrela ez denean ere eutsi egin behar zaio».

Euskarazko Komunikazio Taldeak arduradunak behar ditu MARKETIN eta KUDEAKETA sailtarako (erref.: o8-inmk)

Eskaerak:

- Marketin eta Enpresa Kudeaketa arloko unibertsitate ikasketak.
- Kalkulu orriaren eta datu base programa informatikoen ezagutza.
- EGA edo balioidea den euskara maila.

Kontuan hartuko da:

- Marketin eta kudeaketa lanetan izandako eskarmentua.
- Talde gidaritza esperientzia.
- Harremanetarako eta antolakuntzarako gaitasuna.

Kontuan hartuko da:

- Etorkizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Egun osoko lanpostua.
- Lantokia Andoainean.

Interesa dutenek bidali curriculum, martxoaren 19a baino lehen, erreferentzia zehaztuz, helbide honetara: gizabaliabideak@jarduna.net



Gaszte Topagunearen aurkezpena

LEITZA » Atzo urtero Aste Santuetan egin ohi den Gaszte Topagunearen aurkezpena egin zuten Atekabeltz Gaztetxean. Aurkezpena 20:00etan hasi zen, eta hau amaitu ondoren, afari merienda egin zuten 21:00etan. Gauean musikaren txanda iritsi zen, 23:00etan, kontzertua egin baitzuten. Gaszte Topagunea aurtan Lezon egingen da, martxoaren 21ean, 22an, 23an eta 24a izanen da azkeneko eguna. N. GARZIA



Hezkidetza eskubidearen alde

LEITZA » Atzo, Nazioarteko Emakumearen Eguna dela eta, Ikasle Abertzaleak, Bilgune Feministak eta Gaszte Asanbladak antolatu dituzten ekitaldien artean, frontoian hezkidetza tailerra egin zuten eta ondoren Amazabal Institutuan, elkarretaratzea, *Ikasle borroka hezkidetza eskubidea* lelopean. Frontoian 150 lagun inguru bildu ziren eta emakumearen egoeraren inguruko testu bat banatu ondoren 10 galderei erantzun eta etzabaidatu egin zuten. Antolatzaileek elkarretaratzean «faltan bota zuten irakasleen parte-hartzea». Atezainak ere parte hartu zuten. N. GARZIA



ANOETAKO UDALA

Ttipi-ttapa, ttipi-ttapa eskubide berdintasuna



lortu arte!

Herriko plaza z/g • 943 65 12 00



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendari: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzodon@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Ibarra.** EHNA tramitatzeko aukera udaletxean goizez. 3 argazki eta 15 euro eraman behar dira. Ibartarrak ez direnek errola agiria eraman, eta EHNA galduta duenak, argazkiak eta 7 euro.
- **Ibarra.** Xebas Goikoetxearen XXXI. urtemuga omenaldia: lore eskaintza hilerrian 11:30ean. Ondoren, Aranera jaitsiko dira 12:00etan omenaldia egiteko.
- **Tolosa.** Biga enkantea Ferialekuan 11:00etan.
- **Ikaztegieta.** Emakumearen Eguna: 14:00etan plazan Begiristain sagardotegirako bidea trikitalariek lagunduta. Bertsolariak: Alaia Martin eta Karmele Mitxelena.

Kultur asteak

- **Anoeta.** Barreterapia saioa kiroldegian 10:00etatik 12:00etara (parte-hartzea doan), 20:30ean afaria Buztina jatetxean eta 22:30ean Joneren kontzertua.

Zinema

- **Tolosa.** *Caramel* filmaren jatorrizko bertsiorekin estreinadira Leidor aretoan 22:30ean.

Musika

- **Tolosa.** Inoren ero ni eta Layo Raser zuzenean, Bonberenean 22:30etik aurrera.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

A Agurrak



Urte askoan!

Intza (Txarama). Gaur 5 urte. Zorionak familiaren partetik. Gora martxoak 8.



Altzon eta Anoetan zuhaitz apaingarriak

NATURA • Altzon eta Anoetan Zuhaitz Eguna egin zuten atzo. Altzon, Udalak antolatuta, urtero bezala, herriko txoko bat aukeratu eta eskolako ikasleekin batera landatu zituzten herriarrak. Apaintzeko gereziondoak, haritz bat eta pagoa landatu zituzten frontoiaren inguruan. Bertan, Joxe Mari Arsuagaren laguntza izan zuten eta ondoren tabernan merienda

izan zuten. Anoetan, Kultur Astearen baitan izan zen Zuhaitz Eguna. Etxaburu kalean egin zuten eta magnolia soulangiana zuhaixkak landatzeaz gain, basaramuak eta lili afrikarrak ipini zituzten. Ikastolako LH 5. eta LH 6. mailako ikasleek hartu zituzten aitzurrak lan hau egiteko. Hemen ere, lorezainen laguntza izan zuten. N.U./16.

martxoaren 12an

herri informazioaren leihoa zabaltzera goaz

Euskal Herriko **errepide mapa**

- Euskarazko toponimia
- Bide sare berriak
- Bidaldiak, kilometroko zehazturik
- Herrien zerrenda
- Euskal Herriko hiriburuaren gune turistikoaren plano eta kale izendegi osoak
- Mendi zerrenda

ESKALA 1:200.000
(1 cm=2 km)

Eguneratua!

Martxoaren **8,9** eta **10**ean zure kioskoan

+ 5,95€

aukera ezazu, bizi euskaraz **berria**